

## MERKATUEN ERREGELAMENDUA

### 1. artikulua.

Janari-edariak txikizka erakusteko eta saltzeko bi udal merkatu daude Pasaia herrian: Antxokoa eta Trintxerpekoa.

### 2. artikulua.

Udal merkatuaren zerbitzua zuzeneko kudeaketaren bidez emango da udalerrri honetan eta erregelamendu honen bidez arautuko dira.

### 3. artikulua.

Udal merkatuak antolatzeaz, zuzentzeaz eta ikuskatzeaz zinegotzi bat arduratuko da, alkatearen ordezkari gisa arituko dena. Kargu hori Udal Zerbitzuetako Informazio Batzordeko lehendakaria den zinegotziaren gain egongo da.

### 4. artikulua.

Zinegotzi ordezkariak eginkizun hauek ditu:

- a) Udal merkatuaren zerbitzua alderdi guztietan zaintzea burubide ona izan dezan.
- b) Egoki derizkion aginduak ematea zerbitzua hobeto ibiltzeko eta irauteko non eta Udal Batzarraren edo Gobernu Batzordearen berariazko eskumena ez den, baita alkate-lehendakaria jakinaren gainean jartzea ere.
- c) Egoki derizkion zigorrak proposatzea alkateari, saltokien (bai finakoak bai behin-behinekoak) emakida hartzaileek nahiz bertara biltzen den jendeak arauak hausteagatik ezarri beharrekoak.
- d) Merkatuarekin zerikusia duten era guztietako arazoen berri ematea bai alkateari bai Udal Batzarrari.
- e) Udalari proposatzea hutsik dauden saltokiak enkantera atera daitezela,
- f) Egoki derizkion hobekuntzak proposatzea.
- g) Erregelamendu hau betetzen dela zaintzea.

### 5. artikulua.

1.- Merkatuek ordutegi hau edukiko dute jendearentzat:

- a) Astelehenetik ostiralera:  
goizez: 8:00etatik 13:30etara  
arratsaldez: 17:00etatik 19:30etara.
- b) Larunbatean:  
goizez: 8:00etatik 14:00etara  
arratsaldez: itxita egongo dira.
- c) Igande eta jaiegunetan:  
itxita.

2.- Ordutegi hau edukiko dute hornitzaileentzat eta saltokien emakida hartzaile diren merkatariarentzat:

- a) Astelehenetik ostiralera:  
goizez: 7:00etatik 14:00etara  
arratsaldez: 17:00etatik 20:30etara.
- Larunbatean: goizez: 7:00etatik 15:00etara.

## II. IDAZPURUA

### SALTOKIAK ORO HAR

#### 6. artikulua.

Saltokiak honela sailkatuko dira: finkoak eta behin-behinekoak. Lehenengoak dira, zatiketen mugen barruan daudenak eta denbora osoan emakida hartzaileen salgaiez beteta daudenak; bigarrenak, berriz, saltzaileak eguneko ordu jakin batzuetan bakarrik egoten direnak edo aldi baterako hartzen dituztenak. Saltzaile horiek emakida administratibo finkoa nahiz behinbehinekoa eduki dezakete.

#### 7. artikulua.

Saltoki finkoak honelakoak izan daitezke: bakunak nahiz bikunak, zer azalera duten ikusita.

#### 8. artikulua.

Saltoki eta banko finkoak erabiltzeagatik ordainaraziko diren udal zergak, baita saski, otarre eta abarren arabera ordainaraziko direnak ere, ekitaldi bakoitzean indarrean dauden udal zergen ordenantzek agindutako kopuruan, epean eta moduan ordaindu behar dira.

Zerga horiek ez ezik, edifizio bakoitzearen garbikuntza eta mantenimenduko tasak eta bertako zerbitzuetakoak ere (argia, ura, zabor bilketa) ordaindu behar ditu emakida hartzaileak.

## III. IDAZPURUA

### SALTOKI FINKOAK

#### I. ATALBURUA. Sailkapena

Saltokiak honela sailkatuko dira: harategiak, urdaitegiak. oilasko saltokiak, arrandegiak, fruta eta barazki saltokiak, janari saltokiak.

#### 9. artikulua.

Harategiak dira, edukiera eta indar egokia duten hozkailuez horniturik, behiki, ardiki eta ahunzki freskoa, hoztua nahiz izoztua edo horien hondakinak saltzeko direnak.

#### 10. artikulua.

Urdaitegiak dira, edukiera eta indar egokia duten hozkailuez horniturik, txerriki freskoa, hoztua nahiz izoztua, baita horren hondakinak eta eratorriak saltzeko direnak.

#### 11. artikulua.

Salgai dagoen haragiak, baita txerriarenak ere, etorri den hiltegiko zigilua eduki behar du eta albaiariaren ziurtagiria, haragia ondo kontserbatua dagoela adieraziko duena. Ziurtagiri hori udaltzainen eskuetan geldituko da.

#### 12. artikulua.

Harakinak ezin dezake saltokitik kanpora ez hezurrik ez haragi hondarrik bota merkatuan dagoen bitartean.

#### 13. artikulua.

Erakusmahaietan edo saltoki barruan ezin daiteke ez bilgorrik ez usain txarra botatzen duen gairik jarri.

#### 14. artikulua.

Haragia ebakitzeko lanabesak bezala, saltokiko azulejuak, erakusmahaiak eta zorua ere, garbi-garbi eduki behar dira.

### 15. artikulua.

Harategietan eta urdaitegietan bakar-bakarrik haragia, urdaia eta eratorriak sal daitezke; debekatuta dago, beraz, haragia, urdaia eta abar gazitzea, gazitze lan horiek merkatutik kanpo egin behar baitira.

### 16. artikulua.

Interesatuak hiltegitik laurdenduta datozen haragi puskak hartzeko orduan, haragia merkatuan sartzeko ardura dutenek zapi nahiz mihise zuri eta garbiak erabili behar dituzte.

### 17. artikulua.

Oilasko saltokiak dira, edukiera eta indar egokia duten hozkailuez horniturik, hegazti freskoak, hoztuak nahiz izoztuak eta hegazti nahiz untxien hondakinak, arraultzak, ehizakiak eta gai horien prestatuak saltzeko direnak.

### 18. artikulua.

Hegazti saltzaileek ezin dezakete saltokietan hegazti bizirik eduki, kaiolan sartuta egon ezean.

### 19. artikulua.

Debekatuta dago saltoki barruan edozein animalia hiltzea, lumatzea eta tripak ateratzea.

### 20. artikulua.

Arrandegiak dira, arrain, molusku nahiz oskoldun freskoak saltzeko direnak. Arrainak marmolezko erakusmahaiaren gainean etzanda eduki behar dira espezien arabera edota izotza duten kaxen barruan. Debekatuta dago saltokietan arrainaren garraioan erabilitako kaxa hutsik egotea.

### 21. artikulua.

Arrain saltzaileek baimena izango dute beraiek hartutako mahaietan arraina garbitzeko, baina derrigorrez lanabes egokiak eduki behar dituzte hondakinak botatzeko, hala nola, pertzak, kuboak eta abar. Gordailuak bakar-bakarrik arraina gordetzeko izango dira; beraz, ez da baimenik ematen haietan edozein eratako hondarrak edo gauzak edukitzeko.

### 22. artikulua.

Fruta, barazki eta janari saltokiak dira, gai horiek saltzeko direnak.

### 23. artikulua.

Aurreko sailkapena eragotzi gabe Udalak baimena eman dezake aipatutako gaiak ez beste batzuk saltzeko izango diren saltokiak sortzeko eta ezartzeko.

### 24. artikulua.

Perretxiku edo ontto berezkoak nahiz hazitakoak merkatuan saltzeko aukera, horretarako behar den eta Udalak eman dien emakida nahiz baimen hartzaileek edo jabeek bakarrik izango dute.

### 25. artikulua.

Merkatuan salduko diren elikagai guztiak agindu hauek betez saldu behar dira: indarrean dagoen Elikadura Kodeko arauak, xedapen bateragarriak eta betetzekoak diren gainontzeko aginduak, baita Sanitate Ikuskatzailtzakoak ere.

Emakida hartzaileek nahiz enplegatuek, baimen jabeek eta saltokietako langileek derrigor bete behar dituzte higiene eta sanitate arloetan emango zaizkien agindu guztiak.

### 26. artikulua.

Saltoki guztietan idatzita agertu behar dute haien zenbakiak. Saltoki finkeen emakida hartzaileek beren izen-abizenak agertuko dituen errotilu bana ezarri behar dute. Bi kasuetan nahitaez Udalak

agindutakoa bete behar dute.

Banko luzeen kasuan jendearen agerian egon behar dute zenbakiek.

#### 27. artikulua.

Saltoki bakoitzak zein gai mota daukan izendatuta, mota horretakoak bakarrik saldu behar dira bertan. Ondorio horietarako, saltoki bikunak bakuntzat joko dira.

Aurrez Udalaren baimena izan gabe ezin daiteke inola ere ezein saltokiren mota aldatu.

#### 28. artikulua.

Saltokiez eta banko finkoez baliatzeko eskubidea emango duen emakida Udalak banatuko du, Herri Zuzenbideko korporazio gisa dituen eginkizunez baliatuta. Emakida egunetik aurrera hogeituro urtekoa baino luzeagoak ezin izango diren aldietarako emango ditu, eskualdaketa kopurua edozein dela ere. Egungo jabeek beste hogeituro urtetarako emango zaie saltokia erabiltzeko eskubidea, emakidarekin zenbat urte daramatzaten kontuan hartu gabe, baldin eta haien egoera erregelamendu honek dioenarekin bat badator, beti ere.

#### 29. artikulua.

Saltoki hutsak Udalaren esku daude.

#### 30. artikulua.

Saltoki finko hutsen emakida administratiboa enkante irekiaren bidez emango da, Udalak kasuan kasuan idatziko duen baldintzen orriaren arabera eta Tokiko Korporazioen kontratazio arauak agindutakoari jarraiki.

Enkante horiek Udaletxean egingo dira eta horietan parte hartzeko gordailu bat eratu beharko da behin-behineko fidantza gisa, enkante irekiaren iragarkian ezarriko dena eta saltokirik esleitzen ez zaien parte hartzaileei itzuli egingo zaiena.

Emakida hartzailearen kontura izango dira saltoki hutsa iragartzeak Udalari ekarriko dizkion gastuak.

#### 31. artikulua.

Behin-behineko bermearekin erantzungo da bere egunean behin-betiko bermea eratuko denaz eta azkeneko horrekin erantzungo da, beste ezerekin baino lehenago, emakida hartzaileak bere gain izan ditzakeen erantzukizunez.

#### 32. artikulua.

Enkantean esleipen hartzaile gertatzen denak behin-betiko bermea eratu beharko du kredentziala eskuratzen zaionean.

#### 33. artikulua.

Emakidaren xedea da, erregelamendu honek emandako arauen arabera gai jakin batzuk saltzeko, saltoki finko bat erabiltzeko eskumena ematea.

#### 34. artikulua.

Saltokien emakida hartzaileek frogagiri gisa alkateak sinatutako kredentziala jasoko dute.

#### 35. artikulua.

Emakida hartzaileek esleitzeko orduan ordaindu beharko dituzte Udalak esleipenaren beraren gainean ezarrita dauzkan tasak.

Saltokiak jarraian erabiltzearen gaineko tasak aldizka ordainduko dira, behar diren ordenantzek ezarriko duten eran.

#### 36. artikulua.

Esleipenari ezarritako kuota esleipen unean bertan ez ordaintzeak besterik gabe esleipena indargabetzea ekarriko du.

#### 37. artikulua.

Edozein motatako emakida hartzaileek ezingo dute inoiz ere beren emakida eskualdatu, eskualdaezina izango baita, ondorengo artikuluan ezarriko den salbuespenarekin.

#### 38. artikulua.

Emakida hartzailea hiltzen bada edo saltokian aritzeko ezintasun fisikoa etortzen bazaio, Udalak emakida subrogatzea erabaki dezake, edo harekin bizi ohi den ezkontidearen alde edota, hura ezean, harekin bizi den eta ekonomikoki haren mende dagoen ondorengo zaharrenaren alde.

Aipatutako ondorengo adingabea edo ez-gaia baldin bada, Udalak baimena eman dezake haren tutorea edo lege ordezkaria egon dadin saltokian, harik eta legezko adin nagusitasunera heldu arte edo ez-gaitasunaren arrazoiak desagertu arte.

Nolanahi ere eta artikulua honetako kasuan Udalak dei bat egingo du subrogaziorako eskubidea dutela uste duten guztiak aurkez daitezten. Horretarako hiru hilabeteko epea jarriko du eta epe hori igarotakoan emakida iraungitzat joko da.

#### 39. artikulua.

Edifizioen erabilerak hartara behartuta edo halabeharrezko beste arrazoi batzuegatik, Udalak emakida alda dezake, kalte ordainetarako eskubiderik gabe, baldin eta aurreko saltokiaren antzeko neurriak dituen eta mota berekoa den beste saltoki bat eskaintzen badu, beti ere.

## **IV. IDAZPURUA**

### **SALTOKI FINKOEN ERABILERA**

#### 40. artikulua.

Emakida hartzaileak berak erabili behar du saltokia eta behar dituen mendeko eta langileen lanaz balia daiteke, aldez aurretik Udalarari jakinarazita eta behar dituen zurigarririk aurkeztuta. Mendeko eta langile horiek ezingo dute saltokiaren arduradun gisa aritu, ez bada halabeharrezko edo gaixotasuneko kasuetan eta Udala jakinaren gainean egonda, eta horretarako Udalaren ustez aski arrazoitua egon behar du.

#### 41. artikulua.

Baldin eta saltokia hilabete bat baino gehiago egoten bada jabea bera bertako arduradun izan gabe, arrazoitutako halabeharrezko kasuetan izan ezik, Udalak berarentzat gordetzen du saltokiaren erabilera indargabetzeko, saltoki hutsa iragartzeko eta saltoki horien emakida berriro emateko eskubidea.

Eskubide berdina edukiko du Udalak baldin eta epe horretan saltokia itxita egoten bada.

#### 42. artikulua.

Udaletxean errolda liburu bat egongo da, saltoki guztien zerrenda edukiko duena zenbaki hurrenkeraren arabera. Bertan emakida hartzaileen izen-abizenak eta emakidaren arauak eta zerbitzuaren burubideari buruzko beste alderdi guztiak azalduko dira.

#### 43. artikulua.

Gehiegikeriak galeraztearren debekatuta dago inork saltoki bat baino gehiago hartzea. Egoera horretan daudenek ezingo dute saltoki berrien enkanteetan parte hartu, non eta enkantean parte hartzen duena honelakoa ez den:

- a) Enkantera ateratakoaren aidameneko saltoki bakun baten emakida hartzailea, saltoki hori mota berekoa eta zenbaki bakarrekoa bada, beti ere.
- b) Aurreko baldintza bete gabe ere, saltoki bakun edo bikun baten emakida hartzaile izanik, aldez aurretik aurrekoari uko egiteko gertu dagoena berria esleitzen badiote.

#### 44. artikulua.

Emakida hartzailea derrigortuta dago emakidaren xede diren instalazioak eta bertan egin daitezkeen hobekuntza guztiak daukaten xederako egoera ezin hobean edukitzera.

Erregelamendu honetan ikusitako edozein arrazoiengatik emakida amaitzen denean aurreko

paragrafoan esandako egoeran utzi behar ditu hartzaileak bai saltokia bai instalazio finkoak. Betebehar horiek ez betetzeak eskubidea emango dio Administrazioari bidezkoak diren erantzukizun ekonomikoak eskatzeko. Emakida hartzailearen batek berak hartzen duen saltokian hobekuntza lanik egin nahiko balu, lan horiek egiteko aukera izango luke, baina alde aurretik Udalak proiektua onartuta.

Hobekuntza lanak udalerrriaren onura gisa geratuko lirateke, baita instalazio finkoak ere, ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.

Emakida hartzailearen ez beste inoren kontura izango da gaiak saltzeko ezarri behar diren eranskinak eta tresnak ezartzea eta argindarraren hornidura kontratatzea eta ordaintzea, baitere lanean aritzeko behar dituen eta Udal Administrazioaren baimena duten elementu, instalazio eta abar guztiak ezartzea.

## V. IDAZPURUA

### BEHIN-BEHINEKO SALTOKIAK

#### 45. artikulua.

Behin-behineko saltokiak Udal Administrazioak halakotzat jotzen dituenak izango dira. Horietan erabiltzaileek beren uztatik bildutako gauzak bakarrik sal daitezke, garaian garaikoak izan behar dutenak, eta gainera baserrian ekoiztutako arraultzak eta gaztak, beste edozein motatako gaiak baztertuz. Debehatuta dago gai horiek alde aurretik edozein eraldatze eta merkaturatze prozesurik izatea.

#### 46. artikulua.

Barazkiak edo beste edozein gai merkatuan saltzera sartzen den orok, tokia izendatzen zaionean ordaindu behar du ezarritako tasa, gaiak saldu arte itxaron gabe.

#### 47. artikulua.

Tokia hartzeagatik ordaindu behar den tasa Merkatuen Zerga Ordenantzak aipatutakoa izango da.

#### 48. artikulua.

Banko luzeetan loreak eta landareak sal daitezke, higiene eta garbitasuneko baldintza egokietan eta Udal Administrazioak ezarritako mugen barruan.

#### 49. artikulua.

Banko luzeak hartzeko baimena Udalari eskatu behar zaio eta horretarako Landalur Kontribuzioaren ordainagiria eta agiri osagarriak aurkeztu behar dira.

#### 50. artikulua.

Banko luzea esleitzerakoan fidantza bat eratu behar da eta horren frogagiria emango da.

#### 51. artikulua.

Banko luzeetan hutsik dauden zenbakiak hartzen dituztenaldi baterako saltzaileei tokia izendatzen zaien momentuan kobratuko zaie ezarritako eguneko tasa.

#### 52. artikulua.

Banko luzeen gainean bakarrik egunero saltzekoak diren gaiak ipiniko dira eta ez da utziko haiek hartuko duten altuerak saltokien altuera galeraz dezan.

#### 53. artikulua.

Jatorri aldetik mugarik ez duten landareak eta loreak saltzeko baimena ematen zaien pertsonak Industri Zerga eta Lizentzia Fiskala egunean ordainduta dauzkatela egiaztatu behar dute eta baimena eskatu erregelamendu honen arabera.

## VI. IDAZPURUA

### EMAKIDAK IRAUNGITZEA

#### 54. artikulua.

Erregelamendu honetan araututako emakida guztiak indargabetuta eta kalte ordainetarako eskubiderik gabe geratuko dira honako kasu hauetan:

- a) Emakida iraungitzea.
- b) Epea amaitzea.
- c) Hartzaileak emakidari uko egitea.
- d) Halabeharra, hondamendia, sutea eta abar.
- e) Erregelamenduko arauak urratzea, Udalak hartu beharreko ebazpena aurrez dela.
- f) Merkatua ixtea.

Baimenak ere emakidetarako esandako arrazoi berengatik geratuko dira indargabetuta.

#### 55. artikulua.

Merkatua 54. artikuluan aipatutako arrazoiengatik ez, beste batzuegatik ixten denean, orduantxe bakarrik izango dute emakida hartzaileek kalte ordainetarako eskubiderik.

## VII. IDAZPURUA

### XEDAPEN OROKORRAK

#### 56. artikulua.

Emakida hartzaile orok saltokia edo bankoa garbi-garbi eduki beharra dauka, eta garbikuntza aldetik zorroztasun berdina eskatuko zaie janari-edariak saltzen eta eskuartean ibiltzen dituzten langileei.

#### 57. artikulua.

Debekatuta dago gaixotasun transmitigarriarik duen edo germen patogenoen eramaile den pertsona oro merkaturan sartzea edo bertan egotea. Jendearen osasuna babesteko neurri gisa, debekatuta dago elikadura higienezaren aurka doan ekintza oro. Hamasei urte bete ez dituztenek ezin dezakete saltzen aritu.

#### 58. artikulua.

Merkatuan saltzen ari direnek garbitasun egoera ezin hobean egon behar dute eta kasu guztietan maukerdiak eta mantal zuriak jantzi behar dituzte.

Erabiltzaileen ardura izango da beren saltokietako ateleihoak garbitzea eta hilean behin garbitu behar dituzte gutxienez arretarik handienarekin.

#### 59. artikulua.

Debekatu egingo da garbitasun faltagatik itxura txarra duen kontsumo gairik saltzea.

#### 60. artikulua.

Behin-behineko saltokietan debekatuta dago jateko ez den beste edozein gai saltzea. Gai horiek saltzeko, loreak saltzeko ere bai, Udalaren baimen berezia behar da.

#### 61. artikulua.

Debekatuta dago saltoki barruan sua piztea eta janariak maneatztea. Berotzeko sutontzi edo labe txiki bat bakarrik erabiltzeko baimena emango zaie saltzaileei. Tresna horiek ezartzeko eta erabiltzeko baimena eskatu behar da.

## 62. artikulua.

Erdisotoko oinean dauden ur hartuneak frutak eta barazkiak freskatzeko beste ezertarako ez dira izango; debekatuta dago, beraz, gauzak eta espezieak garbitzeko erabiltzea.

## 63. artikulua.

Erabiliko diren pisuak eta neurriak zenbaki sistema hamartarrekoak izango dira, behar bezala egiaztatuko direnak.

## 64. artikulua.

Saltoki jabeen gain egongo da saltoki aurrean jendea ibiltzeko dauden pasiluak garbitzea. Aurrealde hori erdibana garbituko dute pasilua bi saltokiren artean dagoenean.

## 65. artikulua.

Gutziz debekatuta dago merkatuan inor sartzea edo bertan egotea itxita dagoenean, non eta alkateak pertsona edo entitate bati berariazko baimenik ematen ez dion, merkatuaren zati bat edo merkatu osoa erabiltzeko, haren gain egonik gerta daitezkeen gora-behera edo kalteen erantzukizuna. Debekatuta dago:

a) Honako hauek edukitzea eta saltzea: janari-edari kaltegarriak, desegokiak, kutsatuak, eraldatuak, adulteratuak edo debekatutako gaiekin kontserbatutakoak edo iraungipen eguna pasatakoak.

Baimenik gabeko haragi espeziak eta motak saltzea merkaluko saltokietan.

Saltoki bakoitzerako zehaztuta dauden gauzak ez, beste batzuk saltzea.

Erakusmahaitik kanpo edo jendea dabilen aldean saltzea.

b) Saskiak, kaxa hutsak, larruak, bilgorrak, animalia hilen zatiak eta osasunarentzat kaltegarria den oro bertan uztea.

c) Salgaiak saltoki bakoitzaren perimetrotik edo esparrutik kanpo zabaltzea eta jendea pasatzeko diren lekuak oztopatzea, leku horiek beti ibiltzeko libre egon behar baitute.

d) Salgaiak edo estalkiak aldameneko saltokietako ikuspegia galeraziz ezartzea.

e) Gauzak paper inprimatuarekin biltzea edo estaltzea.

f) Lurrera lastoa, lumak, paperak edo nolana hiko hondarrak botatzea, saltzaile bakoitzak bereak jaso behar baititu bertan edukiko duen kaxoi edo saski batean eta hor estalita eduki, jendearen izkutuan.

g) Merkatuko zoladura gainera ura botatzea.

h) Salgaiak edo haien estalkiak saltokietatik kanpo biltegitratzea emakida hartzaileek erabili behar dituzten orduetatik kanpo.

## 66. artikulua.

Gutziz debekatuta dago merkatuan txakurrekin eta karioletan nahiz itxituren barruan ez dauden animalia biziarekin sartzea eta bertan egotea, animalia horien jabeek isuna ezarriko baitzaie agindutakoari jaramonik egiten ez badiote.

## 67. artikulua.

Debekatuta daude era guztietako jokuak eta zozketak, liskarrak eta istiluak piztea, edozein direla ere haiek pizteko izan diren arrazoiak, baita moralerako eta ohitura onetarako iraingarriak diren hitzak esatea.

## 68. artikulua.

Merkatuan saltzen diren gauza guztiak sailkatuta egon daitezzen eskatuko da eta haien salneurriak argi eta garbi ezarri behar dira.

## 69. artikulua.

Norbera da edozein arrazoiengatik desagertzen zaizkion gauzen erantzule, norberak hartu behar baititu behar diren neurriak haiek zaintzeko.

## 70. artikulua.

Debekatuta dago kaleko saltzaileak merkatu barruan nahiz kanpoan jartzea; aitzitik, berariaz ezarriko den tokian jarri beharra daukate eta alde zuzenetatik kalean saltzeko baimena emango dion agiria eskuratu eta kalea hartzeagatik ezarritako tasa ordaindu.



## 71. artikulua.

Emakida hartzaile orok, nola saltoki finkoenak hala ez. finkoenak, eskura eduki behar du beti edozein udaltzainek eskatzen dionean hari erakusteko, emakidagatik ordainarazteko bidali dizkioten tasen kuotak ordainduta dauzkan egiaztagiria, eta ordainketa horren egiaztagiria erakusten ez badu kuota berria ordaindu behar duela ulertzen da.

## 72. artikulua.

Udal Administrazioak eskumena du edozein momentutan saltoki mota ezberdinek zein ezaugarri tekniko bete behar dituzten erabakitzeko, baita zerbitzua hobeto eman dadin behar diren aldaketak egiteko, eta horiek nahitaez bete behar dituzte emakida jabeek, denen onerakoak direla eta.

## 73. artikulua.

Saltoki jabeek erantzungo dute erregelamendu honetako aginduak, bai beraiek bai saltokian lan egiten duten mendekoek urratzen badituzte.

## 74. artikulua.

Arau hauste arintzat honako hauek joko dira:

- a) Eskandalorik sortzen ez duten eztabaidak edo istiluak.
- b) Arduragabekeria, saltokietako pertsonen garbikuntza arretatsuari dagokionean.
- c) Administrazioak emandako jarraibideei jaramonik ez egitea.
- d) Ohitura onen eta elkarbizitzako arauen kontra doan jokabide ez-errepikatua.
- e) Hornidura nahikoak ez edukitzea eta saltokiak baimenik gabe itxita edukitzea egun batetik hiru egunera bitartean hilabeteko epean
- f) Erregelamendu honetako beste edozein arau haustea, larritzat joa ez dagoena.

## 75. artikulua.

Arau hauste larritzat honako hauek joko dira:

- a) Edozein arau hauste arin errepikatzea urtebeteko epean.
- b) Merkatu barruan eskandaloa sortzen duten istiluak edo borrokak.
- c) Aurreko artikuluko c) hizkiko arau haustea laido nabarmena denean.
- d) Merkatuko enplegatuen agintariak hitzez nahiz obraz iraintzea.
- e) Saltokien egitura eta instalazioak aldatzea baimen eskudunik gabe.
- f) Maltzurkeriaz edo arduragabekeriak edifikazioari, saltokiei, instalazioei nahiz salgaiei kalteak eragitea.
- g) Gaien salneurriak bidegabe igotzea, agintaritzak eskudunak emandako aginduei jaramonik egin gabe, edo gauza kaltegarriak, desegokiak, kutsatuak, eraldatuak, adulteratuak edo debekatutako gaiekin kontserbatutakoak saltzea, eta behin eta berriz pisuan nahiz kalitatean iruzur egitea.
- h) Saltokia hartzeagatik ordaindu beharreko tasa ez ordaintzea eraturako fidantzaren mugaraino.
- i) Emakidan zehaztutakoak ez bezalako gauzak saltzea.
- j) Bi zigor larri ezartzea urtebeteko epean.
- k) Erregelamenduko arauak urratzea.

## 76. artikulua.

Arau hausteak honela zigortuko dira:

– Arau hauste arinak:

Ohartarazpena eta Legeak baimendutako gehieneko mugaren % 50erainoko isuna.

- Arau hauste larriak:

a) Legeak baimendutako gehieneko mugaren % 50etik % 100erainoko isuna.

b) Saltokian saltzeko baimena kentzea 30 eguneraino. c) Emakida galduaraztea inolako kalte ordainik gabe.

#### 77. artikulua.

Zigorak ezartzea alkatearen gain dago, aurrez espedienteak irekita.

#### 78. artikulua.

Udalak ez beste agintari batzuek zigortu beharreko arau haustea agintari haiei jakinaraziko zaizkie bidezkoak diren ondorioak izan ditzaten.

#### 79. artikulua.

Udalak ez du erantzukizunik bereganatuko saltokiei edo instalazioei eragindako edozein eratako kalteengatik, ez eta salgaiak lapurtzeagatik edo hondatzeagatik ere.

Erabiltzaileen batzordeek, Udalarekin hitzarmen bat eginda eta berezko lege nortasuna badute, gaueko zaintza ezar dezakete Udalaren disziplinapean eta kontrolpean, lansariekin eta legezko lan baldintzekin, elkarre bakoitzaren kontura eta haren mende, eta horko enplegatu gisara, eta derrigorrezkoa izango dute merkatuko saltoki guztien emakida hartzaileek, hala erabakitzen bada haiek arautuko dituzten estatutuetan.

#### 80. artikulua.

Sortzen den edozein zalantza, erregelamentu honetan arautu gabe badago, Udalak argituko du.

#### 81. artikulua.

Udaltzaintzako bulegoan egongo dira beti erregelamendu honen aleak jendeak hartzeko moduan.

#### 82. artikulua.

Udala arduratu da nola Ikuskatzailatza eta Zaintzako langileek, hala Udaleko Kontuhartzailatza eta Zergabilketakoek, erregelamendu honek agindutakoa betetzeaz eta betearazteaz.

#### 83. artikulua.

Udalak beretzat gordetzen du erregelamendu hau handitzeko, aldatzeko edo berritzeko eskumena, zerbitzuaren beharrek hala eskatzen badute, eta saltokien erabiltzaileek inolako kalte ordainik jasotzeko eskubiderik izan gabe.

#### 84. artikulua.

Udalak, egokitzat jotzen badu, baimena eman diezaieke legez eraturako erabiltzaileen batzordeei, begiraleak izen ditzaten Udalaren onespenearekin. Begirale horien eginkizuna Merkatuan egiten diren arau haustea salatzea izango da.

#### 85. artikulua.

Saltokien erabiltzaileek zuzenean sar ditzakete saltokietan eguneko hornikuntzarako behar dituzten fardelak eta horiek txikizkako salmentarako izango dira bakarrik.

#### 86. artikulua.

Sotoko oinean eta 1. lokalean, saltokien emakida hartzaileek, arrandegietakoek izan ezik. hiru egunez utz ditzakete estalki hutsak eta garbi-garbiak, erabilera hori guztiz doanekoa izanik.

Arrandegietako emakida hartzaileentzat sotoko oin bereko 2. lokala dago izendatuta eta gainontzeko emakida hartzaileek dituzten baldintza berdinekin.

Sotoan dagoen iturria ontziak garbitzeko erabil daiteke eta guztiz debekatuta dago esparruaren barruan furgonetak garbitzea.

#### 87. artikulua.

Sotoan ibilgailuentzat dagoen esparrua karga eta deskargarako erabiliko da ez besterako; ezingo da, beraz, ibilgailurik aparkatu, alkateak berariazko baimena eman ezean.

Hondakinak eta hondarrak plastikozko boltsa txiki eta ondo itxietan sartu behar dira, zabor bilketako hodian aise sar daitezen.

Boltsa handiak erabili behar badira, satora jaitsi beharko dira eta zaborte giko atearen ondoan utzi. Debekatuta dago toberatik behera hodia trabatu edo hondatu dezaketen kaxak, era guztietako materialak eta isurkariak botatzea.

### 88. artikulua.

Lau arrandegien jabeek hozkailu bat erabil dezakete arraina gordetzeko, behar den kuçta ordaindu eta gero.

Beste hozkailua gainontzeko emakida hartzaileek erabil dezakete. Udalari hala eskatuta, lekua hobeto banatzeko eta behar den gastu banaketa egiteko.

### 89. artikulua.

Indargabetu egiten dira erregelamendu honek agindutakoari aurka egiten dioten xedapen zahar guztiak eta bereziki Pasaiaiko Udaleko Merkatuen Erregelamendua, Udal Batzarrak 1981eko uztailaren 23an onartutakoa.